

2003an 19.267 jaiotza erregistratu ziren, aurreko urtean baino %6,3 gehiago

Jaiotzen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta atzeratu egin da amaizateko adina

EUSTATEN datuen arabera, 2003. urtean, Euskal AEn 19.267 jaiotza izan ziren, 2002an baino %6,3 gehiago, alegia. Araban izan zen gehikuntzarik handiena (%8,1), ondoren Gipuzkoan (%7,9) eta azkenik Bizkaian (%4,6).

Jaiotzak mila biztanleko 9,4 izan ziren, 1960ko hamarkadako milako 20 haietatik oso urruti. Kopururik handiena Gipuzkoan da (%10,2), ondoren Araban (%9,4) eta azkenik Bizkaian (%8,9).

1976tik aurrera, jaiotzek beheranzko joera nabarmena izan zuten; joera hori, dena dela, moteldu egin zen 80ko urteen amaieran, eta 1994an heldu zen mailarik apalena. 2003ko zifrek berretsi egin dute 1995ean abiatutako jaiotza tasen goraldia.

2003an umea izan zuten lau emakumetatik hiruk hogeita hamar urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %45,9 eman baitu. Beste alde batetik, 2002. urtearekin alderatuta, handitu egin da 35 urtetik gorako amen taldea (%29,7), eta berriz ere 25-29 bitarte urteko taldea (%18,8) baino handiagoa da.

Azken hamar urteotan, 30 urtetik beherako adin-talde guztiek pisua galdu dute, batez ere 25 urtetik 29rako adin-taldeak, 13 ehuneko-puntu galdu baititu. Aitzitik, bikoitzera gehitu da 35 edo urte gehiagorekin ama izan direnen taldea.

Jaiotza ordenari begiratuz gero, 2003. urtean lehen seme-alabak %58 baino gehiago izan ziren, aurreko urtean gertatuaren antzera. Hirugarren eta ondorengo seme-alabak, ordea, %5,8 besterik ez ziren izan.

2003.urtean, guraso ezkongabeak zituztela jaiotakoak 3.830 izan ziren. Bestela esanda, halakoak izan ziren jaiotzen %19,9, hots, 2002an (%18) baino gehiago. Gipuzkoa izan zen Euskal AE osoak baino balio handiagoak izan zituen lurralde bakarra, eta hazkunderik handiena izan zuena: 2002an %17,6 ziren, eta 2002an %20,5.

Erditzeak 18.931 izan ziren: horietatik 18.536, bakunak; 377, bikoitzak; 16, hirukoitzak eta 2 lauhoitzak.

2003an jaioen artean, 100 emakumeko 108 gizonezko izan zen sexuen arteko erlazioa. Batez beste, 3.284 gramoko pisua izan zuten gizonezkoek; eta emakumezkoek, 3.168 gramokoa.

1. taula: 2003an bizirik jaioak, amaren egoitzako lurralde historikoaren arabera

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	19.267	2.694	9.806	6.767
Gizonezkoak	9.988	1.390	5.077	3.521
Emakumezkoak	9.279	1.304	4.729	3.246
Jaiotza-ordena				
Lehenengoa	11.198	1.562	5.828	3.808
Bigarrena	6.926	973	3.451	2.502
Hirugarrena edo gehiago	1.143	159	527	457
Amaren adinaren arabera				
< 25 urte	1.071	180	607	284
25 - 29 urte	3.620	488	1.697	1.435
30 - 34 urte	8.845	1.246	4.431	3.168
35 - 39 urte	5.025	683	2.706	1.636
>= 40 urte	706	97	365	244
Amaren egoera zibilaren arabera				
Ezkondua	15.437	2.168	7.892	5.377
Ezkongabea	3.830	526	1.914	1.390

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945 01 75 49. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp